ELIZONDO

1 BAZTANGO UDALETXEA. XVII. mendean altxatutako eraikina .Harlanduzko fatxada dauka. Honen aintzin aldean botarri bat dago, Laxoa jokoan sakatzeko erabiltzen zutena.

AYUNTAMIENTO DE BAZTAN. *Edificio construído en el siglo XVII. Muestra fachada de sillería. Delante del mismo se conserva un botarri que servía para realizar el saque en el juego de laxoa.*

2 XARMAZ BETERIKO TXOKOA. Xarmadun plazatxo ttiki honetatik abiatuta, Errotazanenea eta Iturriotz etxeen estrakatik jautsiz gero, erreka bazterrera iritsiko gara ataka bat pasatu ondoren. Hemendik, presa eta zubia ikuspuntu berezi batetik ikusten dira.

UN RINCÓN CON ENCANTO. *Desde este rincón descendemos entre las casas Errotazanenea e Iturriotz, atravesamos un pequeño portillo y en la orilla del río contemplamos una perspectiva original de la presa y el puente.*

3 TXOKOTO AUZOA. Braulio Iriarte karrikak, edo Eguzkiaren karrikak, nagusiki etxe tradizionalez eratutako Txokoto auzoa du. Muniarteako zubitik erretratatzen dira Elizondoko irudi tipikoenak.

BARRIO DE TXOKOTO. *Alrededor de la calle Braulio Iriarte, o calle del sol, se extiende el barrio con edificaciones de carácter popular. Desde el puente Muniartea se fotografían las más típicas estampas de Elizondo.*

4 BAZTANGO MUSEOA. Puriosenea (XV-XVI) etxean kokaturik dago, baserri estruktura eta harlanduzko fatxada duena. Barrualdean historiaurreko edukiak(-Soalarko iruinarria, etnografikoak eta piktorikoak daude– Cigaren Bilduma-.

BAZTANGO MUSEOA. *Ubicado en el edificio Puriosenea(XV-XVI), de estructura de caserío y fachada de sillería. Conserva en su interior contenidos prehistóricos (Menhir de Soalar), etnográficos y pictóricos -Colección Ciga-.*

5 AMERIKANOEN ETXEAK. Ameriketatik ekarritako dirutzaren aztarna nabarmena da Santiago karrikako hainbat eraikinetan, hain zuzen Justoenean, Manuelenean... baita Jaime Urrutiaren oroimenez dagoen iturri oroigarrian ere.

CASAS DE INDIANOS. *La huella de grandes fortunas procedentes de América queda patente en diferentes edificios de la calle Santiago: Justoenea y Manuelenea... Y también en la fuente monumento dedicada a Jaime Urrutia.*

6 JAUREGI BARROKOAK. Jaime Urrutia karrikari urrin aristokratikoa dario, baztango jauregi-arkitektura eredu erakusgarrienetakoak daude, hala nola Arizkunenea, Arotzenea, Istekonea...

PALACIOS BARROCOS. *A la calle Jaime Urrutia se le confiere cierto sabor aristocrático gracias a algunos de los ejemplos más significativos de la arquitectura palaciega baztanesa Arizkunenea, Arotzenea, Istekonea.*

7 ANTZANBORDA AUZOA. Etxe multzo polita. Dendarieteneak armarrí bitxia dauka, xake-itxura eta gerlariaren kaskoaz gain, oilarra, txakurra eta zaldun bat ezpata goratuta baditu.

BARRIO ANTZANBORDA. *Bonito conjunto de casas. Destaca el escudo de la casa Dendarieta que además del ajedrezado y el casco de guerrero, muestra un gallo, un perro y un caballero con la espada enarbolada.*

8 SANTIAGO ELIZA. Lekuz aldatua 1913ko uholdeen ondorioz. Nabarmentzekoak: Maumejean etxeko beirateak, aintzinaldean dagoen Santiago deunaren tailua (XVI.) , eta lehenagoko elizaren dorrea (XVIII.)

PARROQUIA DE SANTIAGO. *Trasladada de lugar a consecuencia de las inundaciones sufridas en 1913. Destaca: la vidriera de la casa Maumejean, la talla de Santiago (XVI) en la portada y la torre original (XVIII).*

ELBETE

1 **ELIZA.** Nahiz eta XVI. Mendean eraikia den, gaur egun duen itxura XVIII. Mendetik dator. Kanpoaldean Klaustro batez inguratuta dago eta disko-formako hilarri batzuk ikusten dira.

IGLESIA. *Construida en el siglo XVI, su actual aspecto procede del Siglo XVIII, en el exterior cuenta con amplio procesionario que rodea todo el edificio, donde también se pueden contemplar varias estelas discoideas.*

2 **LIXUTEGIA.** Eraikin honek ez du erabilera bakarra izan, hortaz, hainbat elementuz osaturik dago. Alde batetik, lixutegiaren depositua urez hornitzen duen iturria du, eta bertzetik, aziendarendako aska bat saihetsaldean atxikia.

LAVADERO. *Presenta un lavadero, una fuente de la que sale un caño que suministra agua al depósito del lavadero y un aska o abrevadero adosado al lateral.*

3 **JAROLA JAUREGIA.** (XVII. mendea), haraneko udaletxea eraikitzeko arkitektura-eredutako hartu zen. Teilatu-hegal bikoitz landuak eta aurrealde harlanduak nabarmentzen dira. Kontairak dio Ramón de Valle Inclánek sarri bisitatzen zuela.

PALACIO JAROLA *(S. XVII) Sirve de modelo arquitectónico para la posterior construcción de la casa consistorial del Valle . Destaca su doble alero tallado y su fachada de sillería. Se cuenta que era visitado por Ramón de Valle Inclán.*

4 **HARLAUZAK.** Itxitura mota hau arrunt erabilia da abere-hazkuntzari estuki atxikitako landa-guneetatik ateratzen diren bideetan barna. Elbeten badira azienda ez sartzeko lurrean zutik paratutako harlauza gorrixka eder batzuk.

LOSAS. *Este tipo de cierre se encuentran a lo largo de caminos que salen de los asentamientos rurales principalmente ganaderos, Elbete presenta unos estupendos ejemplos de losas hincadas de arenisca rojiza que se utiliza para evitar la entrada de ganado.*

5 **ERROTABIDEKO ZUBIA.** Zubi galant honek bi errota lotzen ditu. Egun duen itxura berrixka da, 2014. urtean pairatutako uholdeen ondorioz egindako berreraikitze-lanek emana.

PUENTE ERROTABIDE. *Esta imponente construcción comunica dos pequeños molinos. Su actual aspecto se debe a las tareas de reconstrucción que tuvieron que realizar a causa de las importantes inundaciones de 2014.*

6 **ERROTA.** Errota hau Elbeteko 31 etxeena izan zen. Eraikin tipia da, errotaren makineria ez ezik, sukalde tipi bat eta errotazainaren atsedenerako gelatxo bat ere bazuena.

MOLINO. *Antiguamente pertenecía a 31 casas de la localidad. Construcción de pequeñas dimensiones que además de la maquinaria propia albergaba una pequeña cocina y un lugar de descanso para el molinero.*

7 **PRESA.** Zubiari eta errotari atxikitako osagaia dugu presa, jatorrian errota urez hornitzen zuena. Arrainek ibaian gora egiten duten bidea errazteko, eskuinaldean eskala bat du.

PRESA. *Forma parte del complejo puente y molino, la presa originariamente abastecía al molino de agua. En su parte derecha se aprecia una escala que facilita el paso de peces corriente arriba.*



8 **MERENDEROA.** Ibilbide honen ondotik, Elizondo eta Elbeteko bistak gozatzeko merendero honen itzalpean atseden hartzea bezalakorik ez da.

MERENDERO. *Después de este recorrido que mejor qué un pequeño descanso contemplando una panorámica de las localidades de Elizondo y Elbete a la sombra en este pequeño merendero.*

2 7 7

FOTOS JUAN LAMEIRINHAS

DL NA 1110-2016